

1. ZER ESKAKIZUN BETE BEHAR DITUT IRAKASLE AGREGATUKO TXOSTENA LORTZEKO BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORREKO TALDEKOA BANAIZ?

- a) UPV/EHUn denbora osoko irakasle elkartu izan behar nuen 2004ko apirilaren 2an (egun horretan hasi zen indarrean Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legea).
- b) 2004ko apirilaren 2an unibertsitatean irakaskuntza edo ikerketa-zereginetan gutxienez bost urtez aritu izana egiaztatu behar dut.

Hiru bide daude UNIQUALen aldeko berariazko txostena lortzeko irakasle agregatuaren figurari dagokionez:

- 1. **2004ko apirilaren 2an doktore izatea** eta Anecako doktore kontratatuari dagokion egiaztagiria edukitzea. Eskari labur bat beharko da berariazko txostena eskatzeko, eta bertan bilduko dira datu pertsonalak, helbide partikularra eta lortu nahi den figura, eta ondoren egiaztagiriaren kopia erantsi eta Unigualera igorri, faxez, adibidez.
- 2. **2004ko apirilaren 2an doktore izatea eta 40 puntu** baino gehiago lortu izana ordainsari-osagarri gehigarriak esleitzeko ebaluazio-prozesuan, 2007ko urtarrilaren 26ko Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuraren erabaki bidez onartutako deialdiak hasitakoa eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta esleitzeko protokoloa jendaurrean jartzen duen Uniqualeko zuzendariaren 2006ko abenduaren 22ko ebazpenari (6. zenbakiko BOE, 2007ko urtarrilaren 9koa) jarraiki.

Eskari labur bat beharko da berariazko txostena eskatzeko, eta bertan bilduko dira datu pertsonalak, helbide partikularra eta lortu nahi den figura, eta ondoren EHUren ordainsari-osagarrien ebaluazioaren kopia erantsi eta Unigualera igorri, faxez, adibidez.

- 3. **2004ko apirilaren 2an doktore izatea** eta berariazko deialdiaren (EGIAZTAPENA-DTII programa informatikoa, Unigualen webgunean eskuragarri dago) eskaera eta curriculum betetzea (alegatutako merezimendu guztien justifikazioko kopia sinpleak erantsita, egiazkotasun-aitorpenarekin batera) eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzea (guztira 65 puntu baino gehiago lortzea, gutxienez 30 punturekin Jarduera ikertzailea eta jakintzaren transferentziari buruzko atalean eta gutxienez 20 puntu Irakaskuntza-jarduera eta lanbide-esperientziari buruzko atalean, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek berariazko txostena lor dezaten deialdiaren zazpigarren oinarriaren 3. idatzatzen aurreikusitakoari jarraiki, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen bigarren xedapen iragankorrek aipatzen duen txostena, hain zuzen ere; UNIQUAL Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco) Unibertsitate Vasco

erakundearen zuzendariaren 2008ko uztailaren 15eko ebazpen bidez onartu zen legea).

2. ZER ESKAKIZUN BETE BEHAR DITUT IRAKASLE LANKIDEKO TXOSTENA LORTZEKO BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORREKO TALDEKOA BANAIZ?

- a) UPV/EHUn denbora osoko irakasle elkartu izan behar nuen 2004ko apirilaren 2an (egun horretan hasi zen indarrean Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legea).
- b) 2004ko apirilaren 2an unibertsitatean irakaskuntza edo ikerketa-zereginetan gutxienez bost urtez aritu izana egiaztatu behar dut.

Hiru bide daude UNIQUALen aldeko berariazko txostena lortzeko irakasle lankidearen figurari dagokionez:

1. ANECAko **lankideko** egiaztagiria edukitzea. Eskari labur bat beharko da berariazko txostena eskatzeko, eta bertan bilduko dira datu pertsonalak, helbide partikularra eta lortu nahi den figura, eta ondoren egiaztagiriaren kopia erantsi eta Uniqualerara igorri, faxez, adibidez.
2. **35 puntu** baino gehiago lortu izana ordainsari-osagarri gehigarriak esleitzeko ebaluazio-prozesuan, 2007ko urtarrilaren 26ko Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuraren erabaki bidez onartutako deialdiak hasitakoa eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta esleitzeko protokoloa jendaurrean jartzen duen Uniqualeko zuzendariaren 2006ko abenduaren 22ko ebazpenari (6. zenbakiko BOE, 2007ko urtarrilaren 9koa) jarraiki.

Eskari labur bat beharko da berariazko txostena eskatzeko, eta bertan bilduko dira datu pertsonalak, helbide partikularra eta lortu nahi den figura, eta ondoren EHUren ordainsari-osagarrien ebaluazioaren kopia erantsi eta Uniqualerara igorri, faxez, adibidez.

3. Berariazko deialdiaren (EGIAZTAPENA-DTII programa informatikoa, Uniqualen webgunean eskuragarri dago) eskaera eta curriculum betetzea (alegatutako merezimendu guztien justifikazioko kopia sinpleak erantsita, egiazkotasun-aitorpenarekin batera) eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzea (guztira 55 puntu baino gehiago lortzea, gutxienez 30 punturekin Jarduera ikertzailea eta jakintzaren transferentziari buruzko atalean eta gutxienez 50 puntu Irakaskuntza-jarduera eta lanbide-esperientziari buruzko atalean, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek berariazko txostena lor dezaten deialdiaren zazpigarren oinarriaren 3. idatz-zatian aurreikusitakoari jarraiki, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen bigarren xedapen iragankorrak aipatzen duen txostena, hain zuzen ere; UNIQUAL Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema

Universitario Vasco Universitario Vasco erakundearen zuzendariaren 2008ko uztailaren 15eko ebazpen bidez onartu zen legea).

3. ZER PROZEDURARI JARRAITU BEHAR DIOT BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORREKOA BANAIZ BAINA DOKTORETZA 2004ko APIRILAREN 2aren ONDOREN LORTU BADUT?

1. Irakasle **lankideko berariazko** txostena eskatzea, 2. erantzunean azaltzen denari jarraiki .
2. **Deialdi orokorraren** eskaera eta curriculuma betetzea (**EGIAZTAPENA** programa informatikoa, Uniqualen webgunean eskuragarri dago) **irakasle agregatuko** figurarako (alegatutako merezimendu guztien egiaztagiraren kopia sinplea erantsita, egiazkotasun-aitorpenarekin batera) eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzea.

4. ANECAKO EGIAZTAGIRIA BADUT, ADIBIDEZ, KONTRATATUTAKO DOKTOREAREN FIGURARAKO, AUTOMATIKOKI LORTUKO AL DUT IRAKASLE AGREGATUKO UNIQUALEN EGIAZTAGIRIA?

EZ. Uniqualen egiaztagiria lortu nahi baduzu, **deialdi orokorraren** dagokion **eskaera eta curriculuma** bete beharko duzu (EGIAZTAPENA programa informatikoa, Uniqualen webgunean eskuragarri dago) irakasle agregatuko figurarako (2004ko apirilean doktore izatea biltzen duen bigarren xedapen iragankorreko taldeak izan ezik, eskatzearekin soilik lortuko baitu berariazko txostena talde horrek, ANECAren ziurtagiria erantsita).

5. EGIAZKOTASUN AITORPENENKO DOKUMENTUAK JATORRIZKOA BEHAR AL DU IZAN?

BAI. Uniquali egiazkotasun-aitorpeneko dokumentuaren jatorrizkoa helarazi beharko zaio betiere (adibidez, posta ziurtatu bidez).

6. FIGURA BATERA BAINO GEHIAGORA AURKEZ AL NAITEKE?

BAI. Pertsona bakoitzak eskatutako egiaztapen-figura bakoitzak espediente independentea osatuko du. Figura bakoitzerako dagokion eskaera eta curriculuma bete behar da, eta figura bakoitzerako egiazkotasun-aitorpeneko dokumentua igorri. Dena den, nahikoa izango da alegatutako merezimendu guztien frogagiriak behin bidaltzearekin.

7. EGIAZTAPENA EDO EGIAZTAPENA-DTII APLIKAZIO INFORMATIKOA ERABILTZEN BADUT, ESKAERA ETA CURRICULUMA INPRIMATU ETA UNIQUALERA IGORRI BEHAR AL DITUT?

EZ. Nahikoa izango da “Cerrar y enviar” (“Itxi eta igorri”) botoia sakatzearekin.

8. EGIAZTAPENA EDO EGIAZTAPENA-DTII APLIKAZIO INFORMATIKOA ERABILTZEN BADUT, NIRE MEREZIMENDUEN FROGAGIRI GUZTIAK ESKANEATU ETA APLIKAZIOAN IGO BEHAR AL DITUT?

EZ. Aukera bat besterik ez da hori. Dena dela, paperean ere igor daitezke frogagiriak Uniqualeran (San Prudentzio kalea 8, 01005 Gasteiz).